

# Bitartekariak eta azken aldian kaleratutakoen adierazpena

Egun on, urte berri on.

## **BITARTEKARIAK**

Milesker gure deialdiari, Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren (EPPK) bitartekari gisa gabiltzanon deialdiari erantzun eta hona hurbildu zareten guztioi.

Gaurkoan, EPPK-ren bitartekariokin batera azken hilabeteotan Espainia eta Frantziako espetxetatik kaleratu berri diren preso-ohi multzo zabalarekin agertu gatzaizkizue. Hemen, gurekin direnen artean, Espainiako Auzitegi Gorenaren doktrina ohiak afektaturiko lagunak daude.

Gogora ekarri nahi dugu Espainiako salbuespeneko tribunalek inposatutako zigorra beteta zuten presoan espetxealdia modu irregularrean nola luzatu duen. Eta zigorra luzatzeko legez kanpoko politika horri Estrasburgok amaiera nola eman dion. Hain zuzen aho batez, gobernu espainolaren espetxe politikak oinarritzko eskubideak urratu dituela erabaki du. Legearen kontrako zigor erantsiarekin amaitzea agindu dio Espainiari.

Eta hemen dira zuen begi aurrean. Presoon kaleratzeak drama eta derrota politiko gisa bizi izan dutenek, gertaera ezin irentsi ibili dira, sekulako kanpaina politikoa astinduz. Inpunitateaz mintzo zaizkigu 20-30 urte bitarteko espetxealdia, eta nolako espetxealdia, jasan behar izan dutenen kasuaz ari direnean. Kideak eta senideak bidean nola geratu diren ikusi dutenen kasuaz.

Inpunitate zantzurik ez, zigor gogor eta erantsia baizik da jasan behar izan dutena. Inpunitatea, inpunitate osoa, estatu aparatuek eta haietan murgildurik aritu direnek izan dute azken hamarkada luzeotan. Egun ere halaxe jarraitzen dute, gatazkaren beste aldean inolako presorik ez egoteak garbiki erakusten duen bezala.

Presoen kaleratzeak modu positibo eta eraikitzailean hartuak izan daitezten deialdi arduratsua luzatzen dugu hemendik, apaltasunetik gatazkan parte izan denak asko du eta aportatzeko, gatazkaren konponbidean aurrera egiteko.

EPPK-k udan zehar eztabaida sakona eramanean du aurrera. Joan den asteburuan bere Mintzaidetzaren izenean Adierazpen baten bidez

ezagutzera eman ditu hausnarketaren ondorio eta erabakiak. Zalantzarik gabe, bidea egiteko ibilbide zabala eskaintzen dutenak.

Adierazpenean espreski jasotzen den gisan, eta datozen asteetan gogoetak eman duen posizionamendu politiko berritzailea, euskal eragile sozial eta politikoekin jorratzeko konpromisoa hartu dugu bitartekariok.

Hain zuzen presoek eskubideen aldeko dinamika sozial eta politikoa agenda politikoan bete betean den testuinguru honetan, hilaren 11rako hitzordua erreferentzia nagusi gisa dugularik.

Hona etorri gara beraz, une politiko garrantzitsuan, iritzi publikoaren aurrean hainbeste hitz egin den doktrina eta hark eragindako presoekin. Azken 30 urteotako borroka eta enfrentamendu politikoaren lekuko eta sujetu direnak. Haien hitzak aurrera begirako ikuspegian garrantzitsuak diren uste osoa dugu. Urte eta garai berriari begira, ekarpen baikor eta eraikitzailea direlakoan gaude.

EPPKren bitartekariak 2014ko urtarrilaren 4an

Egun on eta milesker etortzeagatik,

## **PRESO-OHIAK**

Konsziente gara gure hitzek sentimendu kontrajarriak sortu ditzaketela, bati baino gehiagori ezinegona sortuko diotela. Hartara, arduraz arituko gara, borondate eta ikusmira baikor eta eraikitzailearekin hainbeste urteren ondoren berriro ezagutzen ari garen errealitate sozial eta politikoari ekarpen xumea egiteko konfiantzarekin. Esan behar dugu, esker oneko sentitzen garela gure herri eta auzoetan eman zaigun harrerarekin, jasotako berotasun eta arduragatik zordun garela gure herriarekiko eta herrikideekiko.

Espetxe urte asko dira gure bizkar gainean daramazkigunak, hemen bildu garenon artean bakarrik 1500en bat espetxe urte inguru. Horietatik 200 espetxe urte Estrasburgok ebatzi duenaren arabera legez kanpoko zigor erantsi gisa. Salbuespen lege eta neurrien jomugan izan gara, sakabanaketak eragindako heriotz eta minaren lekuko. Baina espetxealdiaz haratago, gatazka politikoaren ondorioak ere badaramazkigu gure baitan, borrokaren lekuko eta sujetu izan baikara, jasan eta eragindako sufrimenduaren hartzaile zuzen izan garen bezala, eta halaxe aitortzen.

Askapen prozesuaren bilakaerak, borroka armatua behin betirako uzteko ETArek erabakia ekarri du. Norabide horretan Ezker Abertzaleak bere ildo politikoa berregokitzeko erabakiak hartu ditu. Orain gutxi arte preso ginelarik, EPPK-ren kide izan gara, eta haren eztabaida eta erabakiekiko atxikimendua izan dugu. Azken urteotan EPPK-k ere bere posizionamendu politikoa egokitzeko egin duen ahalegin haundiaren parte aktibo izan gara.

Aurreko asteburuan EPPK-k bere Adierazpenarekin azken hilabetetan eraman dugun eztabaidaren ondorioak argitara eman ditu. Salatu behar dugu zer nolako baldintzetan eman behar izan dugun azken eztabaida, berezko baldintza zailei jazarpen zorrotza gehitu behar zaio eta, toxikazio informatibo iraunkorrak lagunduta. Halere, EPPK gai izan da eztabaida bururaino eramaten, ondorioak atera eta erabaki sakonak hartzen.

Ezagutzera emandako erabakiekin erabateko adostasuna azpimarratu nahi dugu gaurko agerraldi honetan. Ezker Abertzalearen ekimenez irekitako agertoki politiko berriarekiko gure konpromisoa erabatekoa da. Gatazka politikoaren ondorioekiko guri dagokigun erantzukizun osoa onartzen dugu.

Gatazkaren konponbidea baina ikuspegi integraletik garatuz etorriko da. Gatazkaren erro politikoari helduz hain zuzen, eta hori euskal herritarrok gure geroari buruz erabakitzekeo dugun eskubidean datza. Normalizazio politiko demokratikoak lortzera goazen oinarrizko eskubide hori gauzatu ahal izatea eskatzen du. Kolpe batean multzo haundi bat kaleratu gara. Baina multzo haundiagoak Frantzia eta Espainiako espetxetan jarraitzen du oraindik eta egoera konpontzea premiazkoa da. Gatazka armatuaren aroa amaitzearekin batera, haren ondorio guztiak konponbidean jarri behar dira. Salbuespen neurriak bertan behera geratu behar dira eta eskubide oro aitortu. 2014 honetan, sakabanaketaren 25. urteurrenak espetxe politikaren aldaketa ekarri behar du. Gure senide eta lagunak zigortzen dituen sakabanaketarekin amaitu behar dugu. Presoak Euskal Herrira ekarri behar ditugu, eta azken presoak etxeratu. EPPK-k iniziatiba politikoa erakutsi du, orain jendartearen momentua da, kalearen momentua, gure esku dago blokeoa pitzatu eta urratzea. Herritarrak, eragile sozial eta politikoak, alderdi eta insituzioak, guztion ahaleginarekin Espainiako eta Frantziako Gobernuak mugiarazi behar ditugu.

Presoen egoera konpontzeko eta orohar gatazkaren ondorioak konponbidean jartzeko EPPKren mugimenduaren balio politikoa nabarmentzen dugu. Euskal eragile sozial eta politikoekiko EPPKk hartutako konpromisoa azpimarratzen dugu. Aurrera begira ez bairik gabe eremu zabala irekitzen du, beste eragile inplikatuarekin batera mugimendu berriak ekarriko dituenena. Guk, EPPK-k aurrerantzean emango dituen urrats eta ekimenak kanpotik bultzatzeko gure konpromiso pertsonala ere adierazten dugu.

Izan ere, urte luzeotan, salbuespeneko espetxe politikari eta eskubide urratzaile diren lege eta neurri orori aurre egiteko izan dugun grina berberarekin, konpromiso berberarekin, eta ilusio berrituarekin, gure Herriak oraindik jasaten duen zapalkuntza gainditzeko eta merezi duen askatasuna lortzeko lanean jarraituko dugu. Maila sozial, ekonomiko eta politikoan topatu dugun gizarte aldatuan herrikideekin eskuz esku.

Gutako bakoitza ur tanta gara, itsasoa mugitzen laguntzeko. Daukaguna eskaintzen dugu: gure esperientzia eta bizipenak gatazkaren konponbideari begira eta proiektu politiko demokratikoaren mesedetan jartzen ditugu. Askapen prozesuan,

Ezker Abertzalearen hautu politikoan, ekarpen xume eta eraikitzailea egiteko erabakitasuna dugu.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Amnistia-autodeterminazioa!

Azken garaiotan kaleratutako EPPKren kide ohiak

Euskal errepresaliatu politikoak bihotzean, 2014ko urtarrilaren 4an